# SANTA MAINE

Santa Maine batzuetan, Ubideko andra «malbako» batek esnea egosten ipini eban. Lan au leenengoz egiten eban eta esneak egosteko ganazka egin bear ebala ez ekian. Esnea ganazka asi zanean:

«Santa Maine» gloriosea gitxi eukinen, asko emoilea.

Esan eta mazkilu andiagoaren bila, auzora joan zan. Barriro etorri zanean, mazkilua «ganaz-ganazka» utsituta aurkitu eban. Orduan auxe esan eban: «Zeuk emon eta zeuk kendu, zeuk gure dozuna egizu.»

*Irakurlea: Bibiñe Pujana – Irakaslea  (Zeanuri)*